

Laneko Segurtasun eta Osasunaren Mundu Eguna 2020 Gelditu dezagun pandemia: laneko segurtasunak eta osasunak bizitzak salba ditzake

Apirilaren 28an [Laneko Segurtasun eta Osasunaren Mundu Eguna](#) ospatzen da, LANEk babestuta. Aurten, COVID-19ren pandemiari aurre egiteko mundu osoko gizarte guztiek duten erronka handiaren aurrean, Lanaren Nazioarteko Erakundeak hasieran aurreikusita zuen gaia aldatu du Mundu Egun honetarako - Indarkeria eta jazarpena lan-munduan -, eta laneko gaixotasun infekziosoen agerraldiari aurre egitea izango du gaia, arreta berezia jarriz COVID-19ren egungo pandemiari.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak eta Lan eta Justizia Sailak bat egiten dute LANEk gizartearen estamentu guztiek egin beharreko ahalegin itzela aitortzearekin. Horregatik, Egun horretan nabarmendu nahi dugu talde-lana behar dela aurrera egiteko, gure esparruan, langileek, haien ordezkariak, enpresaburuek, prebentzio-zerbitzuek eta administrazio publikoek osatzen dugunon talde-lana.

Etapa honek ezartzen dizkigun mugak ikusita, talde-lan hori sinbolizatzen duen irudi bat egin nahi izan dugu, talde-lan bat non bakoitzak bere erantzukizun-eremutik baina elkar hartuta lan eginda, birusa geldiaraztea lortuko dugun, LANEren mezua nabarmenduz, hau da, laneko segurtasunak eta osasunak bizitzak salba ditzaketela. [Kartela deskargatu](#)

Ikuspegi praktikotik, Osalanek ahalegin guztiak egin ditu hainbat eduki landu eta jendearen eskura jartzeko, webgunean aurki daitezke erraz [Covid-19ri buruzko biltegian](#)

Lantokian jarduera modu seguruan abiarazteko jarduketa-gida, jarduera motaren arabera birusaren prebentzio-fitxak, galdera ohikoenen erantzunak edo enpresariak lantokietako arriskua murrizteko jarraitu beharreko urratsak, besteak beste; eduki guztia Covid-19k lantokietan dituen arriskuak ahalik eta gehien murriztera bideratuta.

“Talde-lana, birusa geldiarazteko”